

ESPERIENTZIAK-EXPERIENCIAS / SIDRERÍAS-SAGARDOTEGIAK

Gozatua Hernanin: sagardogintza, sarobeak eta trikuharriak.

SAGARDOAREN LURRALDEA - 20/01/2014 • 14:53 • Editar

Sin comentarios



Larre-Gain sagardotegiarekin elkarlanean, **Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak (GPS)** eskaintza berri bat prestatu eta sustatu du. Hernaniko kultur ondarea, modu atsegin batean, ezagutzera ematea eta balioztatzea da helburu nagusia.

Larre-Gain sagardotegia izango da topagune-lekua eta ardatz nagusietariko bat. Jardueraren lehen zatian zailtasun baxuko **mendi ibilaldi gidatua** egingo dute bisitariek Aiako harriko parke naturaleko eremuan barrena, Saratsetako leporantz, inguruneko paisaia kulturala zuzenean ezagutzuz: saroiak eta trikuharriak dira ondare horren izarrak. Ibilaldiak Larre-Gainen izango du helmuga. Jardueraren bigarren zatian sagardogintza izango da gai nagusia. Ibilaldian zehar sagardogintzaren lotutako hainbat arlo landuko badira ere (sagastiak, sagarrondoaren zikloa), **sagardotegia bisitatuz** ezagutuko dugu sagardoaren kulturaren funtsa (historia, egiteko prozesua, sagardoaren ezaugarriak). Garai bakoitzak eskaintzen dituen aukerak baliatuko ditugu sagardogintzaren lanak ezagutzeko (sagar-jotzea, botilaratzea).

Guztira 3 ordu inguruko jarduera izango da. Hasiera batean, ibilaldiak 2 ordu inguru emango du eta sagardotegiaren bisita ordu bat. Beti ere, taldearen behar eta ezaugarrietara egokitzeko aukera izango da. Bisita hau herritar guztiei zuzendua dago eta hezkuntza ez formaleko taldeei, adibidez euskaltegi eta elkartei.

Eskaintza

Oinarritzko planteamendua mantenduz (ibilaldia+sagardotegiaren bisita), sagardotegiko bazkaria edo afariekin osatuko litzateke, kasu guztietan produktu itxia izanik. Urte-garaia arabera, sagardogintzaren prozesuko lanak ikusteko aprobetxatuko dugu, esate baterako, urrian sagar-jotzea.

Prezioa

- **33 €** (28 € Sagardotegiko menua kafearekin + 5€ irteera [3 orduko iraupena jarraian]).
- **31 €** (28 € Sagardotegiko menua kafearekin + 3€ [5-12 urteko haurrak]).

Eskaintza-Epea

- **Urriak 5,19, 26** (larunbatak): goizez eta arratsaldez.
- **Azaroa, abendua, urtarrila**: asteartetik igandera, goizez, aurrez erreserba eginaz eta gutxieneko taldea osatzen bada (**20 pertsona**).
- **Otsaila-Iraila**: goizez zein arratsaldez, asteartetik igandera, aurrez erreserba eginaz eta gutxieneko taldea osatzen bada (**20 pertsona**). [Igandeetan ez da afaririk ematen.](#)

Oharra: jarduera hau "banaezina" da, hau da, Larre-gain sagardotegian bazkaltea edo afaltzea ezinbestekoa izango da.

Informazio gehiago:

943 49 50 69 / 943 55 58 46
arditurri@gipuzkoamendizmendi.net
www.gipuzkoamendizmendi.net

Iturria: Donostia Turismoa

Tags: esperientziak, Gozatua Hernani, Hernani, Larre Gain sagardotegia, sagardoa, sagardotegiak, Sidra, Sidrerias

Sagardoaren Lurralde



Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurralde.com
www.sagardoarenlurralde.com

RSS Feed
Twitter
Facebook

Buscar / Bilatu

Categorías

Azokak-Ferías
Ekitaldiak-Eventos
Errezetak-Recetas
Esperientziak-Experiencias
Formazioa-Formación
Gastronomia-Gastronomía
Historia-Historia
Kultura-Cultura
Lehiaketak-Concursos
Museos-Museoak
Sagarra-Manzana
Sagastia-Manzanal
Sidra-Sagardoa
Sidrerias-Sagardotegiak
Turismoa-Turismo

Post Recientes



Txotx boladaren irekiera
Saizar sagardotegian.



Gozatua Hernanin:
sagardogintza, sarobeak
eta trikuharriak.



Martin Berasategik
inauguratu zuen txotx
bolada Urbil Merkatal
Gunean.



Sagardoaren Hiztegia:
Izurriak eta animalia
onuragarriak.

Anterior post
Martin Berasategui inauguró el txotx en el Centro
Comercial Urbil.Martin Berasategik inauguratu zuen
txotx bolada Urbil Merkatal Gunean.

Siguiente post
Apertura de la temporada del txotx en la sidrería
Saizar.Txotx boladaren irekiera Saizar
sagardotegian.

Tu comentario / Zure komentarioa

Registrado como Sagardoaren Lurraldea. Desconectar »

Enviar



XIII. Sagar Uztako sagar
tarta irabazlea.

Comentarios recientes

J.M de Amassorrayn en **2014KO TXOTX IREKIERA. KALAKAN taldeak irekiko du txotx bolada berria.**

Kalakan abrirá mañana la nueva temporada de txotx | NON SERVIAM en 2014KO TXOTX IREKIERA. KALAKAN taldeak irekiko du txotx bolada berria.

Sagardoaren Lurraldea en XIV. Kirikoketa Besta Arizkunen, azaroaren 2an.

agandamin en XIV. Kirikoketa Besta Arizkunen, azaroaren 2an.

Aritz en Donostiako XXVIII.

Sagardo Eguna, irailaren 7an.